



Asteasun Zaldi Festa antolatu dute asteburuan

TOLOSA ▶

Sextabaida gaur Bonberenean

ESTREINAKOZ ▶ Orotara 60 zaldun inguru bilduko dira Olarreko kanpan eta lehen aldiz Hegoaldean zaldi gaineko orientazio proba egingo dute ▶ 4

Hitzaldia izango da Karlos Yuster-ekin ▶ 2



70 urte atzera egin du herriko plazak 'La buena nueva' filmarekin

LEITZA ▶ Helena Tarbena zuzendariaren *La buena nueva* filma ari dira grabatzen egunotan Leitza kaleetan. Istoriak Gerra Zibilean kokatzen ditu pertsonaiak. N. GARZIA ▶ 7

ALEGIA ▶

Intxurre taldeko Lurraldekako mutilak Lehen Mailara igo dira

Neskek finala jokatu dute etzi; kadeteek, igoera pausu batera ▶ 5

Publizitateko Grafika

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

heziketako praktikoa
talde txikiak
praktikak enpresetan
2000 orduko iraupena

TITULAZIO OFIZIALA IKASTETXE PUBLIKOAN
Aurreinskripzio epea: ekainaren 1etik 8ra

IES Usandizaga-PeñafloridaBHI
Felipe IV, 1A
20011 Donostia
Gipuzkoa
Tel 943454366

BERRIA GIPUZKOAN

ceipro

Diseinua eta kreazioa halmenean
oinaritutako heziketa

- **DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA**
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
GOI MAILAKO HEZIKUNTZA ZIKLOA
- IRAILPENA / 2 ikasturte / 2000 ordu
SARRERA - 2.000€ - LH1 - EE I - edo HSAOL BAZKILERGIA gaituztu
- **ARTE GRAFIKODEN AURREINPRIMAKETAN TEKNIKARIA**
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
GOI MAILAKO HEZIKUNTZA ZIKLOA
- IRAILPENA / 2 ikasturte / 2000 ordu
SARRERA - 2.000€ - LH1 - EE I - edo OBE gaituztu

GIZARTEA ▶

Kontrol elementuak izango dira mintzagai 'Sextabaidan'

Gaia lantzen hasi aurretik, honen inguruko hitzaldia eskainiko du Karlos Yuster-ek, gaur, Bonberenean

ERREDAKZIOA

«Plazerraren mugapen gaia gainditu eta kontrol elementuak» izango dira aztergai *Sextabaidan*, hurrengo asteetan. Dena den, gaia lantzen hasi aurretik, honen inguruko hitzaldia eskainiko du gaur Karlos Yuster-ek, Bonberenean, 19:30ean.

Martxoaren 21ean hasitako ekimena da *Sextabaida*. Bere helburua sexualitateari buruzko eztabaida publikoa egitea da. 2006ko abenduan Izarapeko aholkuak, sexuaren gida askea argitaratu zuen Gaztesareak. Liburu horretan ia hiru urtean www.gaztesarea.net/gozategi atalean jasotako galdera erantzunak bildu zituzten. Baina, galdera teknikoetatik haratago, sexualitatea bere



SEXtabaidako aurkezpen ekitaldiko irudiak. HITZA

osotasunean aztertzeke premiak behartuta bigarren ekimen hau abiarazi dute.

Lehen eztabaida gaia plazerraren mugapena izan da. Internetez eztabaida garatzeaz

gain, orain dela bi aste Bilboko 7 katu Gaztetxean hitzaldi-eztabaida izan zen. Orain, gaiez aldatuta, kontrol elementuak ardatz hartuta ekimenarekin jarraituko dute Bonberenean.

HEZKUNTZA ▶

Ingurumena aztertu dute elkarlanean

Erredakzioa ▶ Hirukide Eskolapietako ikasle batzuk, *Mugaz gaindiko hartu-emanak* ekimenaren baitan, txangoa egin zuten Hendaiara (Lapurdi). Izan ere, frantseseko ikasgaia hautatu zuten 3. DBHko ikasleak Baigorriko Jean Pujó eskolarekin batera, *Turberak*, *Biodibertsitatea* eta *GPSaren erabilera* proiektua landu dute. HITZA



TRIATLOIA ▶

Zalakain eta Leunda garaile Gorlizekoan

Euskadiko zirkuitoko lehen triatloia jokatu zen hilaren 20an, distantzia sprint-ean

ERREDAKZIOA

Distantzia sprint-ean jokatu zen hilaren 20an Euskadiko Zirkuituko lehen triatloia. Itsaso zakarra izan zuten, ia hiru metroko olatuekin, eta honek uretako saioa laburragoa izatea ekarri zuen. Errepidea bustita egoteak ere bizikletako saioa arriskutsua bihurtu zuen, lasterketan zehar eroritako ugari izan baitziren.

Guztira 362 partaide izan ziren Gorlizko badiako irteeran. Neska izan ziren lehenak Iratzen eta Itsaso Leunda (Garratiz K.E.) berriro ere 23 urte azpikoen mailan gailendu eta orokorrean 5. sailkatu zen bizikletako saio ikusgarria egin ostean.

Mutilak izan ziren hurren-

goak, bertan Egoitz Zalakain (Kraff- Atletiko) iritsi zen lehenengo 1:04:08-ko denbora eginez eta horrela ia zoko arantza atera ahal izan zuen. Aimar Agirresarobe (Kraff- Atletiko) ere bikain 11. iritsiz. Alberto Vaquero (Tolosaldeko T.T) 62. eta damu zen igerian ia azken lerroan ateratzeaz. Iñaki Insausti (Tolosaldeko T.T) eta Ion Marin (Tolosaldeko TT) 102. eta 103. lasterketa osoa elkarrekin burutu ostean, azken honentzat bere lehen triatloia zelarik. Eta Xabier Beladarrain 131. (Tolosaldeko T.T).

Hurrengo zita ekainaren 2an izango dute Ondarrun distantzia olinpikoan eta ziur lehen postuetatik gertu izango ditugula gure herriko neska mutilak.



Egoitz Zalakain eta Itxaso Leunda triatloilariak. HITZA

hilberria ▶



Fede Aranbarri Seguroa

Fede, Emiarraitzko kide luzaroan ibili izan gaituk elkarren ondoan. Orain gure artetik haizelako joan, hartu ezak atsedean betirako loan, biririk irauteko guztion gogoan.

Emiarraitz B.E. kideen izenean

hilberria ▶

hilberria ▶



Pello Arrieta Telleria

Herenegun hil zen Soraluzen, 55 urte zituela.

Hi begi askok ikusteituen bihotz oneko laguna herri matte ta elkarte zale abeslari sutsu-ona Aitzkorrieko orbel guztiak ongi mugitzen hittuna gazte sasoiko heldu zaik hiri bide luzeko eguna zotin ta malkoz anai maitea ahaztu ezingo deguna.

Hire anai-arrebak

Segura, 2007ko maiatzaren 29a



hilberria ▶



Fede Aranbarri Seguroa

(Azpeitiko Udalaren Euskaltegiko irakaslea)

Zure lana eta lankidetzat eskertuz



AZPEITIKO UDALA
EUSKALTEGIA

ETXEBERRIA
TABERNAren
irekierara
gonbidatuta
zaudete!

Gaur, 19:30etik
20:30era

San Juan kalea
ALEGIA

JOXE MANUEL ODRIOZOLA ▶ IDAZLEA

«Hizkuntzaren izaeraz sortuko dugu eztabaida»

Euskara irakasle altzotarrak 'Hizkuntzak ere egiten gaitu' gaia jorratuko du Kultur Etxean, 19:30ean

IÑIGO TERRADILLOS

Aitzol Udal Euskaltegiak, 2007-2008. ikasturtean, 25 urte beteko ditu euskara irakasten Tolosan eta Tolosaldean, eta urteurrena ospatu asmoz, kultur ekimen batzuk antolatzeko asmoa dauka 2007-2008 ikasturtean zehar. Hala, gaur aurkepen-hitzaldi bat antolatu dute 19:30ean, Kultur Etxean. Haste-ko, 25. urteurrenaren hainbat xehetasun azalduko dituzte, eta segidan, Joxe Manuel Odriozola (Altz, 1948), euskara irakasle eta idazleak, azken egunetan eztabaidatua izan den *Hizkuntzak ere egiten gaitu* gaia aztertuko du hitzaldi-interaktibo bat eskainiz.

Zer azalduko duzu hitzaldian?

Bi atal izango ditu. Batetik, hizkuntzaren beraren definizioa emango dut, pentsamendu eta giza errealitatearekin dituen harremanak azalduz. Filosofian agertu diren definizioak



Joxe Manuel Odriozola. L. MONTES

eta iritziak emango ditut, eta azken batean, hizkuntzak izaera instrumentala duen ala askoz ere sakonagoa aztertuko dugu. Ondoren, ondorio praktikoa azalduko ditut, politikan adibidez. Esaterako, abertzale-atasunarentzat hizkuntzak zer nolako lekua izango lukeen eta izan beharko lukeen azalduko dut.

Guztia, jendearen parte-hartzearekin.

Bai. Jendeak uneoro parte hartzea da helburua, eztabaida hasieratik sortzea.

IRITZIA ▶ JOXEMI SAIZAR

Pentagraman dantzan

Ilun dago Leidor aretoko eszenatokia eta bu-taka patioa. Saxofoiak hausten du isiltasuna. Abeslari zuriak sartzen dira Estoniako doina kantari abesbatza osatu arte. Kontrabaxua, teklatua eta bateria inkorporatzen dira eta beltzasanari eta zuritasunari kolorea jartzen hasten dira, tertziopelozko ikutuz, nota bat han, akorde bat hemen. Doinu zahar eta berriak des-tilatzen dituzte banan bana. Imanol ezin falta, noski, ekitaldian. Ipar Europa, Amerika eta Afri-kari keinu eginez euskal sustraia du ikuskizun-ak. Emaizta ez da berrikuntza, gaizki ohituta baikaude Tolosan, luxuzko musikariak ditugu gertu eta hori ordaintzeko urrerik ez dago ezta Karibeko piraten unti urperatuetan. Eta propi-na gisa Exaudi abesbatza kubatarrak modan jarri zuen *Juramento* eta *Umama* gainera.

Leidor aretotik urte luzetako lehiaketetan pasatu diren abesbatza zaharkituen irudia hankaz gora bota eta gaur eguneko abesbatza bat ikus ahal izan genuen larunbat gauean, hausnarketa egunean, bildutakoek. XXI. mendeko ikuspegia

erakutsi zuen ekitaldiak: musika interpretatze-ko era, ikuskizuna jendaurrean agertzeko mo-dua, janzkera... Eta gustatzen zait emaitza, atse-gin dut abesbatza eta jazzaren ezkontza hori, tempo desberdinen uztarketa gustagarri da edonorentzat. Erregistro horietan eroso mugit-zen dira Juantxo Zeberio eta Hodeiertz abesba-tza. Hari horiekin soineko fina ehuntzen badaki-te. Pentagraman gora eta behera dantzan, jola-sean, baina irrist egin gabe. Mezua trans-mititzen badakite, une jakinetan entzulegoa hunkitzearen artea ederki menperatzen dute. Eta hori ez du partituran jartzen. Hori gutxi ba-tzuk lortzen dute.

Ez naiz ausartzen kritika musikala egiten, so-pranoek desafinatu duten ala ez esaten, baxuei entzuten zitzaien ala ez agertzen, musikariek bemol batean huts egiten duten ala ez baieztatzen, baina okasio batzuetan kontzertu bat bar-rru-barruraino iristen da eta inongo komenta-riorik gabe pasatzen da. Eta oraingoan ez nuen nahi hori gertatzea.



Iragan larunbateko *Umama II* kontzertuko une bat. Hodeiertz abesbatza, Juantxo Zeberio teklatua, Mikel Andueza saxofoia, Gonzalo Tejada kontrabaxua eta Hasier Oleaga bateria aritu ziren Leidorren. HITZA


HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAn jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

hilberria ▶


 **Fede Aranbarri Segurola**
(Azpeitiko Udal Euskaltegiako irakaslea)

Udaberria, lurra ernetzen,
Kukua basoan.
Eta zu, txorietan txori,
non zabilta kantuan?
Izarraitzen, Arauntzan, Ernion...
Gure gogoan.

Azpeitiko Udal Euskaltegiako lankideok eta ikasleek

AZPEITIA, 2007ko maiatzaren 31


hilberria ▶

 **Fede Aranbarri Segurola**
(Zarauzko Udal Euskaltegiako irakaslea)

Isiltasunean izan dira
zure lana eta bizitza
beti izango zara
gure oroimenean eta bihotzean

Zarauzko Udala, Euskara Zerbitzua

hilberria ▶


 **Federiko Aranbarri**

Bihotzean min dugu,
min etsia,
negar isila,
darion mina

Azpeitiko Lagun Onak Mendizale Elkarteak

AZPEITIA, 2007ko maiatzaren 31

hilberria ▶

 **Pedro Maria Aseginolaza Oyarbide**
(JAUNA)

- Goian Bego-

Ibarrako Udal korporazioa eta langileak

IBARRAN, 2007ko maiatzaren 31n

ASTEASU ▶ AISIA

Zaldi Festa antolatu dute asteburuan Olarreako kanpan

Lehenengo aldiz Hegoaldean zaldi gaineko orientazio proba egingo dute; gutxienez 60 zaldun inguru bilduko dira festan

IMANOL GARCIA

Asteasuko zenbait zaldizalek bultzatuta, asteburuan Zaldi festa egingo dute Olarreako kanpan. Ekitaldien artean, eta antolatzaileek azaldu dutenez, Hegoaldean lehenengo aldiz zaldiekin orientazio proba egingo dute.

Etzi goizean hasiko dira ekitaldiak. 10:00etan zerbait jan ondoren 11:00etan orientazio proba hasiko dira egiten. Zaldiekin 25 kilometro ingurukoa izango da eta 5 ordu inguru iraungo ditu. Oinez egiteko aukera ere izango da eta 10 kilometro ingurukoa izango da. Arratsaldean zaldien inguruko erakustaldia egongo da. 20:00ak aldera afaria egingo da eta ondoren country musi-



Eskualdean zaldizale ugari daude; I. Zaldi Ibilaldia da adibide. N. URBIZU

ka egingo duten hiru talde ariko dira.

Igandean, 09:00etan gosaldia eta gero, ibilaldia antolatu dute zaldi gainean. Gero bazkaria egingo dute Olarreko Goiko jatetxean.

Dagoeneko 60 bat zaldunek eman dute izena eta eguraldi ona bada, lagun gehiago espero dituzte. Zaldiekin joan behar dutenek zein afarirako eta bazkariarako izena emateko 607 83 17 97 zenbakira dei dezakete.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ HALTEROFILIA

Teddy Martinez, Espainiako txapeliduna

Junior mailan lortu zuen garaipena; Munduko Txapelketan ariko da ekainean

ERREDAKZIOA

Danena Olaederra Halterofilia taldeko Teddy Martinez pultsulariak Espainiako Junior Txapelketan lehenengo postua lortu zuen 85 kiloko mailan. 135 kilo igo zituen arrankadan, 175 kilo bi denboratan eta 310 kilo total olinpikoan, hiru urrezko domina irabaziz. Horrela, Euskadiko errekor berria lortu zuen bi denboratan. 180 kiloko barra gutxiagatik ezin izan zuen altxa. Hori lortu izan bazuen, banakako sailkapen orokorrean lehenengo postua lortuko zukeen. Total olinpikoan lortutako markari esker (310 kilo), Pragan ekainaren 7tik 16ra egingo den Munduko Junior Txapelketarako txartela lortu du.

Danena-Olaederra taldeko hainbat pultsularik ere parte hartu zuten. Igor Sasiainek zilarra arrankadan eta brontzea total olinpikoan lortu zuten; Mikel Quintanak brontze arran-

kadan; Angel Martinek laugarren postua bere mailan; Iker Hernandezek seigarren postua eta Jon Lopezek zazpigarren postua.

II. Euskadiko Liga

Danena-Olaederrako pultsulariek maila ona erakutsi zuten Villabonan egindako II. Euskadiko Ligan kadete eta etorkizuneko mailatan. Gipuzkoako selekzioa Danena-Olaederrakoek osatu zuten.

Kadete mailan Gipuzkoak lehenengo postua lortu zuen. Jokin Urkizuk, Adrian Sasiainek, Koldo Sarachok eta Kelliam Quintanak hartu zuten parte. Banakako sailkapenean Jokin Urkizuk 3. postua lortu zuen.

Promesa mailan Gipuzkoak hirugarren postua lortu zuen, Iker Hernandezen eta Jon Lopezen parte-hartzearekin. Banakakoan, Iker Hernandezek lehenengo postua lortu zuen.

Euskaratona
Euskaraz
kotxeak

asteburuak Pirinioetan 8 lagunentzako

42" plasmak

afariak

auto-giro hegaldiak

DVD-ak

TDT-ak

txartelak salgai Gipuzkoa osoko tabernetan

KONTSEILUA

ALEGIA ▶ KIROLA

Lurraldeko mutilak Lehen Mailara igo dira

Neskek finala jokatu dute etzi, eta kadeteek igandean
Ohorezko Mailara igotzeko berdinketa nahikoa izango dute



Larunbatean goian daudenek jaso zuten sari berezia: prestatzaileak tartean ere daude. F. RENOBALDES

NEREA URBIZU

Alegiko Intxurre futbol eta areto futboleko ia talde gehienek larunbatean denboraldiari agur esan zioten, baina ez zuten guztiz bukatu, izan ere, oraindik gauza batzuk erabakitzeaz daude. Ziurra dena, lurraldeko 2. mailako mutilak igo egin direla da; datorren ur-

tean, beraz, Lehenengo Mailan ibiliko dira, duela urte batzuk bezala.

Sailkapen nagusian 2. gelditu dira, Elgetaren aurka 5-2 irabazi baitzuten azken partidari. Haien esku ez zegoen dena, beste taldeen arabera izango baitzen igoerarena. Azkenean 26 punturekin bukatu dute, eta Antzuolaren atzetik (29 puntu).

Mariño, talde gogorra ere, 3. gelditu da 24 punturekin.

Senior mailako neskek, hasiera batean, etzi jokatu dute finala 16:30ean Bidebietan, Donostian, baina ez da oraindik ziurra haien aurkaria: Altza edo Zestoa izango da. Atzo gauetan jokatu zuten partidari bi taldeak aritu ziren eta hauen emaitzaren arabera, Alegiko

taldeko nesken aurkaria izango da. 29 puntu lortu dituzte seniorrek.

Kadeteen finala igandean

Kadeteen finalaren joaneko jokatu zuten asteburuan Oihartzunen aurka, eta 3-1 irabazi zuten. Orain, etxean jokatu beharko dute etorriko, igandean 16:30ean. Hauek berdinketa batekin nahikoa izango dute kadeteen ohorezko mailara igotzeko. Orain arteko lanak ongi egin dituztenaren seinale.

Jubenilek, gogoratu behar, aurten denboraldi ona egin dutela ere, haien mailako Gipuzkoako Kopan hirugarren egin baitzuten.

Larunbatean herriko plazan sariak banatu zituzten Intxurrekoen artean: bertan, aurten maila ezberdinetako jokalarien jokaera zelaian eta zelaia-tik kanpo ere baloratu zuten. Datorren astean bodega batera doaz zaharrenak.

SARITUAK ▶

Neska, infantila. Maria Apalategi.

Mutila, infantila. Imanol Irzustabarrena.

Mutila, kadetea. Iñaki Altuna.

Mutila, jubenila. Beñat Murua.

Neska, seniorra. Esther Videra.

Mutila, lurraldekoan. Iker Esnaola.

Sari bereziak. Unai Llamas eta Gorka Zubeldia.

ALBIZTUR ▶

Kultur Astean 'Bota Patxa' eta igandean pilota partidak



Sharea ere izango da. E. MAIZ

N. URBIZU

Albizturko Kultur Astearekin jarraituz, eta bukatzeko asteburuan izango diren ekitaldiak hauek izango dira: *Bota Patxa* antzerkia etzi 22:00etan eta pilota partidak igandean.

Bota Patxa lana Begoña Bilbaorena da eta umorea jorritzen du. Aktore lanetan Iker Galarza eta Joseba Usabiaga ikusi ahal izango ditu Albizturko Kultur Etxera hurbiltzen denak.

Igandean, berriz, Share modalitatearen erakustaldia eta bi pilota partida izango dira pilotalekuan, 12:00etatik aurrera. Jokalariak Telleria-Telletxea, Narbarte-Senperena, eta lau eta erdikoan Renobales eta Olaetxea ariko dira. Arkaitz elkarteak eta Udalak antolatutako Kultur Astea honela bukatuko da.



Koldo Mitxelena Kulturunea
Urdaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

ERAKUSKETAK

Jose Ramon Amondarain: Islaren isla

Apirilaren 19tik
ekainaren 16ra
Erakustaretoan



Isidoro Guinea eta dekorazio arteak

Apirilaren 25etik
ekainaren 23ra
Ganbara aretoan



Erakusketen orduetgia
10:30-14:00 / 16:00-20:30
igande, astelehen eta jaiegunetan Itxita
Bisitak gidatuak lortzeko deitu: 667 346 025



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Erabaki al duzu non jarraitu zure ikasketak?

Etorri eta ezagutu MONDRAGON UNIBERTSITATEA bertatik, ATE IREKIEN SAIOETAN

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA | Arrasate-Mondragón | Areto Nagusia

maiatzak 31 17:30 | osteguna

ekainak 9 11:00 | larunbata (Biteri Ikastetxe Nagusia)

Izena emateko: 943 71 21 92 bmarkaide@eps.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA | Eskoriatza

maiatzak 31 18:00 | osteguna

Areto Nagusia

Izena emateko: 943 71 41 57 sarrera@huhezi.mondragon.edu



www.mondragon.edu/etorkizuna



LEABURU-TXARAMA ▶

Alkatetza ziurtatu
gabe dago
oraindik

Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak jakinarazi duenez, «hauteskondeetan gu izan gara alderdi edo plataforma bozkatuena. Ondorioz udal gobernua osatzeko eta herritarren hitza errespeta-tua izan dadin, herriko beste plataformaren buruarekin hurrengo asteartean elkartuko gara, ekainaren 16ean Udala nola osatu erabakitze-ko. Orain dela lau urte bezala aurkitzen gara, orduan EAJk ez zuen kargurik hartu eta funtzionatzen gestionatu dugu udala gaur arte».

IBARRA ▶

Atari tabernan
lapurrak sartu
ziren asteartean

Asteartean, Atari tabernan lapurrak sartu ziren goizeko 4:00ak aldera. Bizilagunek zarata handi bat entzuten eta ondoren 2 pertsona ikusi zituzten korrika. «Bai Euskarariko opariak eta diruaz gain, makina eta kanbioetarako txanponak eramane zituzten lapurrek».

IBARRA ▶

Ibartar batentzat
izan da Izaskungo
jaietako saria

Joxe Mari Aldalur Agirrezabala ibartarrak irabazi zuen Izaskungo Jaietako zozketa. 3555 zenbakiaren jabeak, genero ezberdinez osatutako saria bereganatu zuen.

Tolosako
Udala

IRAGARKIA

Udalak Osoko Bilkuran hasierako onespina aho batez, hau da, Udaltzatzen gehiengo absolutuz, eman zion Tolosako Hiri Ordenamenduen Plan Orokorriari, zenbait baldintzarekin, eta bere espeditentza jenduraren jarrita egongo da lau hilabete, 2007ko irailaren 30 arte, nahi duenak aztertze eta egoki diren alegazioak aurkezteko. Era berean, aipameneko erabakiaren bidez, geldirik geratzen dira, gehienez ere bi urtez, era guztietako onespinak, baimenak eta lizentziak hurrengo egoera honetan dauden espantuetan: aurreikusituen diren determinazio berriek orain indarrean dagoen erregimenaren aldatzea dakartzen.

Hiri Ordenazioko Plan Orokorria bi lekutan azter daiteke: Tolosa Udalteko bigarren solairuan, lanegunetan (larunbatetan izan ezik), bulego orduetan, eta Kultur Etxeko lehen solairuan, arratsaldeko 4etatik 6etara, abuztuan, izan ezik. Bestalde, onartutako Plan Orokorriaren dokumentua Tolosako Udalaren web orrian ere ikus daiteke (www.tolosakoudala.net).

Tolosan, 2007.eko maiatzaren 17an
ALKATEA.

Stua. Jokin Bildarratz Sorron

IBARRA ▶ KULTURA

Akelarrea grabatu
ondoren «benetako
akelarrea» Diman

‘Sua’ filmako «azkenurreko» grabaketa, akelarrea, etzi egingo dute Bizkaian, Dimako Baltzola kobazuloan



Mauleko gazteluan jende ugari bildu zuten EALkoek. Helburu berarekin elkartuko dira larunbatean. HITZA

ASIER IMAZ

Eneko Aritzaren Lagunak taldeko partaideak, Sua izeneko luzemetrai batean dira murgildurik azken hiru urteotan. Film hau, lagunartean eginda-

ko proiektu bat da, guztiz amateurra eta jende arrunta erabiltzen dute estra modura. Grabaketa eta lan askoren ondoren, jada azken grabaketaren atarian daude. Hau dela eta, azken grabaketa handi bat egin

nahi dute edonork parte har dezan. Horretarako deialdi zabal bat egin dute. «Jende guztiaren partaidetza lortu nahi dugu, Euskal Herri guztiko haur, gazte, heldu nahiz zaharren partaidetza. Beraz deialdi

hau Euskal Herriko edo kanpoko edonorentzat doa zuzenduta», esan dute antolatzaileek.

Etzi, 11:00etan Ibarra

Ibarra plaza 11:00etan geratu dira Dimara abiatzeko. Autobusez joan nahi dutenek, Denak, Zubiaurre edo Atari tabernetan eman dezakete izena, edo 652715800 telefono zenbakira deitu beharko dute.

EALkoek autoz joateko aukera ere jarri dute, hauek 13:00etarako Baltzolan egon beharko dute grabaketan parte hartzeko. «Filmako lanak egin ondoren, jaian parte hartu nahi ez dutenek etxerako bidea har dezakete, eta beste guztiak, inguruko baserri batetara hurbilduko gara. Bertan, bigarren akelarrea bat egingo dugu, kamararik gabe, eta hurrengo egunean, eguerdiko 12:00etan autobusak eta kotxeak hartu eta denok bueltan etxera».

Antolatzaileek «lotsarik gabe» jaian parte hartzeko deia luzatu dute, «eraman beharreko gauza bakarra, esterila eta zakua izango dira. Abarra edo alpargatak eramanez gero hobe, baina, izango ez bazenituzte guk jarriko genituzke. Galdu ezin duzuen aukera da, guztia jai giroan antolatua, jende ezberdina ezagutuz, proiektu ezberdin batean parte hartuz eta ahaztezina izango den asteburu bat igaroz», adierazi dute.

IBARRA ▶ GIZARTEA

San Lorenzo Udaltalde
21ek ekimen berria jarri
du abian jaietarako

A. IMAZ

San Lorenzo Udaltalde 21etik edalontzi berrerabilgarriak atera dituzte ingurugiroa zaintzeko helburuarekin. Ekimen honekin Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain eta Ibarra edalontzien erabilera eragin nahi da.

«Hondakinen ekoizpena, egungo gizarteak duen bizimoduari lotuta doa, eta une honetan arazo larria bilakatu da gure herrialdean. Zabortegeiak betetzen ari dira pixkanaka, herritarrok uste baino hondakin kopuru gehiago sortzen baitugu. Gure gizartearen praktikak kontutan hartuz, eta ildo horri jarraiki, herriko festa, herri bazkari, ospakizun,

kola festa antolatuko du, aipaturiko edalontzi hauek erabiliz. Euskal dantza mantendu eta zabaldu helburuz, Alurr Dantza Taldeak ekainaren 9an dantza eguna antolatuko du Ibarra, ekitaldi honetarako ere edalontzi berrerabilgarriak erabiliko dituzte. Sendi Ekintza elkarteak ekimenarekin bat egingo du ekainaren 16an, tortilla eta txokolate jana antolatuko baitute gazte festak direla medio.

Berastegin, Muñagorri ikastola eta bertako Guraso Elkarteak edalontzi hauek erabiliko dituzte ekainean antolatzerako doazan jardueratan: J.A. Muñagorri ikastola ere 2006-07 ikasturtearen amaieran dago eta, urtero egin ohi duen bezala, eskola festa antolatuko du ekainaren 22an. Aurten, edalontzi berrerabilgarriak bertan izango dira. Guraso Elkarteak, San Joan bezperan afaria antolatzeko gain, San Joan Eguna ere ospatuko du txikienekin. Hauek ere ekimenarekin bat



Edalontzi berrerabilgarria. HITZA

egin dute. Elduainen, edalontzi hauek, irailaren haseran ospatuko dituzten herriko festetan erabiliteza aurreikusituen dute».

Edalontzi berrerabilgarrien inguruan informazio gehiago bildu nahi izanez gero, 943 673824 telefonora dei daiteke, edota sanlorenzo21@euskalnet.net helbide elektronikora idatzi.

LEITZA ▶ ZINEMA



Soldaduak. Helena Tabernaren filma Gerra Zibilean oinarrituta dago, eta honen ondorioz, soldaduen presentzia nabarmena da film osoan zehar. Hori dela eta, Leitzako plazan atzo soldaduz jantzitako figurante ugari ikusi ahal izan ziren. Atzetik, emakumeak eta estandarteak. N. GARZIA



Grabaketa. la goiz osoa behar izan zuten eszena hau filmatzeko. Irudian, soldaduak desfilatzen, plazara hurbiltzen. N. GARZIA



Meza. Arratsaldean, beste eszena batean, apaizak meza latinez eman zuen, falangistak, soldaduak eta herritarrak aurrean zituela. N. GARZIA



Entseguak. Falangistak bezain garrantzitsuak izan ziren apaizak Gerra Zibilean. Irudian, eszena filmatzen hasi baino lehen, entseguan. N. GARZIA



Talde lanaren garrantzia. Figurante eta aktoreez gain, talde handia ari da lanean *La buena nueva* filmaren grabaketa aurrera ateratzeko. Irudian, teknikariak, lanean. N. GARZIA

Denboran atzera egin du herriko plazak

‘La buena nueva’ filmaren grabaketa dela eta, Gerra Zibilean kokaturiko film baten agerlekuan bihurtu da plaza

NAIARA GARZIA

Ehundik gora figurante bildu ziren atzo Leitzan *La buena nueva* filman parte hartzeko, baina atzo ezezik, herenegun ere grabazio lanetan aritu ziren eta oraindik ere aritzekoak dira. Hori dela eta, egun hauetan plaza ingurua eraldatuta dago, eta denboran atzera egin du.

Egun hauetan plazara hur-

biltzen direnek ez ohikoak diren zenbait elementu topatuko dituzte: bandera espainiar ugari, Gerra Zibil garaiko afitxak, Frankoren aldekoak... Juanenea bera ere aldatu dute, eta erakusleiho berriena kendu egin dute, zahar itxura gehiago emateko. Honela, Leitzako plazak hauekin 70 urte atzera egin ditu denboran.

Jende ugari bildu zen bai goizean bai arratsaldean ere pla-

za, eta egun osoan zehar asko izan ziren bertara hurbildu ziren herritarrak, baita hainbat komunikabideetatik etorri zirenak ere, atzoko eguna baitzen filmaren zuzendaritzak hedabideentzako aukeratu zuen bakarra. Eguraldiak dezentze lagundu zuen, astelehenean, esaterako, euriarengatik Leitzako plazan grabatu ordez Gorritiko abadearen etxean filmatu baitzuten. Atzo berri-

goizean eguzkia tarteka ere ateratzen.

Gaur ere plazan grabatzen ibiliko dira, eta bihar, plazan gain, inguruko kaleetan ere lanean ibiliko dira. Egunduekian haren grabatu ondoren, larunbat goiza izanen da azkeneko eguna, eta ekai-

naren 13ra arte ez dute berriro herrian grabatuko. Ekainaren 13an eta 14ean Juanenean grabatuko dute. Leitzan filmatzeaz gain, Hernani, Azpeitia, Ezkio, Donostia eta Aldatzen ere lanean ariko dira, eta ekainaren 28a izanen da Leitzan filmatuko duten azken eguna.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko maiatzaren 31, osteguna ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez

arratsaldez

beroena

17

hotzerna

14

BIHARKO EGURALDIA

goizez

arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(balantza argizteko, harpidetuen egileko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. I. Maratoia Indoor izango da ekainaren 16an Belabietan, 17:00etatik 19:00etara. Izen-ematea, kiroldegian edo 943671544.
Tolosa. Sextabaida izango da Bonberenean 19:30ean, sexualitatearen inguruko mahai-ingurua.
Tolosa. Joxe Manuel Odriozolaren *Hizkuntzak ere egiten gaitu* izenburua daraman hitzaldia Kultur Etxean 19:30ean, Aitzol Udal Euskaltegiaren 25. urteurrena dela eta.

ZINEMA

Tolosa. *Together* filma emango dute Zine-forumean, Leidor aretoan 21:45ean.

ERAKUSKETAK

Alegia. Alegiko argazki taldeak antolatuta, 1978. eta 1979. urteetako Languarre eguneko argazki proiektzioa izango da.
Alegia. AKO aldizkariaren historia biltzen duen erakusketa hiru egunetan zehar izango da Kultur Etxean.
Alegia. Jubilatuen tabernan marrazki erakusketa dago ikusgai. Orokorrean inguruko baserrienak dira. Arkatzez daude eginda.
Tolosa. Nestor Basterretxearen eskulturak eta Iñaki Epelderen pinturak ikusgai izango dira Aranburu Jauregian, CIT-TE Eren 40. urtemugako ekitaldien barruan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.



Laskorainek Ikastolaren Eguna ospatuko du igandean

TOLOSA ▶ Igande honetan Ikastolaren eguna ospatuko dute Laskorainen. Urtero bezala, ekintza ugari antolatu dituzte. Hala, egun polita igarotze aldera, Bizikleta ibilaldiarekin emango diote hasiera egunari. Jarraian hamaiketako eskainiko dute Usabalen eta umeentzat joku ezberdinak antolatuko dituzte: herri kirolak, gin-

kama eta altxorraren bila. Ikasleek prestaturiko emanaldiekin jarraituko dute: haur hezkuntzako dantzak, abesbatza, antzerkia... Aurten, gurasoek Ikastolako patioan prestaturiko paela dastatzeko aukera izango dute; 850 lagunek eskuratu dute jadanik horretarako txartela. Bazkal ondoren ere izango da zer gozatua.

TOLOSAKO INMAKULADA IKASTETXEA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ERIZAINNTZA LAGUNTZAILEA
- FARMAZIA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- DIAGNOSI IRUDIA
- OSASUN DOKUMENTAZIOA
- GIZARTE INTEGRAZIOA
- HAUR HEZKUNTZA

IZEN EMATEA: MAIATZA

Kondeko Aldapa, 5-B 20400 TOLOSA
Tel.: 943-673629 www.inmakuladatolosa.com

TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

→ Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua

Goimailako zikloak: Euskaraz

- Mekanizazio Bidezko Produktzioa
- Eraikin eta Prozesu-Instalazioen Mantenimendua eta Jartzea
- Metal-Eraikuntza
- Erregulazio eta Kontrol-Sistema Automatikoak
- Administrazio eta Finantzak
- Informatika- Sistemen Administrazioa

IZEN EMATEAK / AURREMATRIKULA:
Ekainaren 1etik 7ra

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu

Tel.: 943 65 11 47 • 943 65 06 64
idazkaritza@tolosaldea.com • www.tolosaldea.com